



ATE IREKIEN JARDUNALDIA PEDAGOGIA

2024-3-15

Nori zuzenduak?

Graduko Pedagogia ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika **ikasleei** zuzendua.

Sarrera probak 2024-2025 edo 2025-2026 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2024ko martxoaren 8an** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Pedagogia Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila eta ikasketa horietara sartzeko errepertorio egokia .

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

9:30 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, **Musikene** eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:30 Pedagogia espezialitatearen eta ikasketa planaren aurkezpena Olatz Saitua eta María José Aramberrirekin.

11:00 Erakustaldia irakasgai hauetan: Perkusio instrumentuen Oinarrizko Teknika (Jesús Mari Garmendia), Ganbera Korua (Maite Oca) eta Inprobisazioa (Monica Melcova).

Musika-kapsula

11:30 Tailer praktikoa: Orff metodologiaren sentsibilizazioa Carmen Domínguezekin.

Musika-kapsula

12:00 Tailer praktikoa: Kodály metodologiaren sentsibilizazioa Xabier Urtasunekin.

12:30 Atsedenaldia

12:45 Erakustaldia: Dantza Musika Hezkuntzarako Diana Campóorekin.

Musika-kapsula

13:00 Tailer praktikoa: Willems metodologiaren sentsibilizazioa Lucía Pérezekin.

Musika-kapsula

13:40 Dalcroze metodologiaren aurkezpena Pablo Cerniken parte hartzearekin. Talde dinamika.

Musika-kapsula

14:20 Galderak eta iruzkinak

Pedagogia jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago eskuratzeko jarri harremanetan Olatz Saitua Pedagogia, Kultura eta Pentsamendua eta Gorputz Teknikak Departamentu buruarekin
dpto.pedagogia@musikene.net